

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko abenduaren 30etik 2020ko urtarrilaren 3rako astea


➤ INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

➤ GURE IKUSPEGIA

EUROPA: PMI MANUFATURA-INDIZEA




Datuaren analisia

Euroguneko manufakturen sektoreko PMI Markit indizeak indarra galdu zuen abenduan, azaroko 46.9tik 46.3ra jaitsi baitzen. Hala ere, aurreko irakurketa (45.9) baino pixka bat gorago kokatu zen. Herrialdeka, Alemania izan zen berriro emaitzarik kaskarrena lortu zuena, 43.7ko datuarekin (irakurketa aurreratua: 43.4), eta Italiako eta Herbehereetako gainbeherak azken sei urte eta erdiko handienak izan ziren. Bestalde, hazkunde-erritmoa sendoa izan zen Grezian eta Frantzian. Espainian, datua 47.4koa izan zen.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei Euroguneko manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

AEB: ISM MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisisia

Estatu Batuetako manufaktura-sektorearen jarduera azken hamarkada luzeko mailarik txikienera jaitsi zen abenduan. Izan ere, eskari berrien bolumena duela 11 urteko minimoetatik gertu geratu zen eta lantegietako enpleguaren datuak bosgarren hilabetez jarraian behera egin zuen. Kudeaketa eta hornikuntza institutuak (**ISM**) adierazi zuen fabriken jarduera-indizea 47,2ra jaitsi zela aurreko hileko 48,1etik. Irakurketa analistek espero zutenaren (49) oso azpitik egon zen.

Adierazlearen azalpena

ISM Manufaktura-indizea konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hilero egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: PMIak



Datuaren analisia

Txinako abenduko manufakturen PMIak ez zuen aldaketarik izan azarotik, eta 50,2 puntutan kokatu zen. Datua, beraz, analistek espero zuten 50,1 puntuen gainetik geratu zen. **Manufakturena ez den ISMaren** datua ere argitaratu zen, eta azaroko 54,4 puntuetatik 53,5 puntutara jaitsi zen. Halaber, **PMI konposatua** 53,4 puntutan kokatu zen abenduan, aurreko hilean baino 0,3 puntu gutxiagorekin. **Caixin PMI manufaktura-indizea**, bestalde, 51,5era jaitsi zen abenduan, esperotako 51,6 puntuen aldean eta azaroko 51,8tik.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboei manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazle a	Aurreik.
01/06	Japonia	Japoniako Jibun Bank fabrikazioaren PMIa	--
01/06	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
01/06	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	53.2
01/06	Alemania	Hileko xehekako salmentak	% 1.0
01/06	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	52.0
01/06	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	53.9
01/06	Italia	Markit Italy Services PMI	50.9
01/06	Italia	Markit Italy Composite PMI	49.7
01/06	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	52.4
01/06	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.0
01/06	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	52.0
01/06	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	49.5
01/06	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	52.4
01/06	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	50.6
01/06	Eurogunea	Sentix inbertitzailearen konfiantza	2.6
01/06	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI	49.1
01/06	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	48.5
01/06	Eurogunea	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.1
01/06	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	52.2
01/06	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
01/07	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	--
01/07	Japonia	Japoniako Jibun Bank Zerbitzuen PMIa	--
01/07	Eurogunea	Hileko xehekako salmentak	% 0.7
01/07	Italia	MoM EBko KPI harmonizatua	% 0.2
01/07	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0.3
01/07	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$43.7b
01/07	Estatu Batuak	Ez fabrikazioaren ISM indizea	54.5
01/07	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 2.0
01/08	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	104
01/08	Frantzia	Balantza komertziala	-5071m
01/08	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	101.4
01/08	Eurogunea	Enpresa-arloko klima	-0.18
01/08	Eurogunea	Konfiantza industrialia	-9.0
01/08	Eurogunea	Zerbitzuen konfiantza	9.5
01/08	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
01/08	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	160k
01/09	Txina	Urte arteko KPIa	% 4.7
01/09	Alemania	Balantza komertziala	21.3b
01/09	Alemania	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0.8
01/09	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 7.5
01/09	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	220k
01/10	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.1
01/10	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.2
01/10	Italia	Hileko industria-ekoizpena	% 0.0
01/10	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 3.5
01/10	Estatu Batuak	Hileko handizkako merkataritza-salmentak	% 0.2

BURTSA:

Burtsako indizeen balantzea negatibo samarra izan zen Europan urteko lehenengo astean, eta mistoa AEBetan eta Asian. Merkataritza-arloko aurrerapausoek eta AEBen eta Iranen arteko tentsio geopolitikoaren gorakadak piztu zuten inbertsiogileen arreta. Donald Trump presidenteak iragarri zuen urtarilaren 15ean sinatuko duela Txinarekin egindako akordio komertzialaren lehen fasea, eta Pekinera bidaiatuko duela laster, bigarren faseari buruzko elkarrizketei ekiteko. AEBek Bagdaden duten enbaxadari egindako erasoaren ondoren, Estatu Batuen eta Iranen arteko tentsioak bizitu egin ziren, misil amerikarrekin Bagdadeko aireportua eraso egin eta Irango Soleimani jenerala hil zutenean. Badirudi erasoaren helburua Iranek etorkizunerako zituen planak zapuztea zela. Bestetik, Espainiako gobernuko presidentetzarako hautagaiaren inbestidura saioaren lehen jardunaldia egin zen joan den asteburuan. Pedro Sanchez jarduneko presidentek ez zuen gehiengo osoa lortu, eta, beraz, asteartera arte itxaron beharko du izendatua izateko. Datu makroekonomikoei begira, manufakturen adierazleek mezu mistoak utzi zituzten, hala Txinan (manufakturen PMI ofizialak espero baino portaera hobea izan zuen eta Caixin indizeak espero baino gehiago egin zuen atzera) nola AEBetan (Chicagoko manufakturen PMIak aurreikuspenak gainditu zituen, eta manufakturen ISMa, berriz, espero zen datuaren oso azpitik geratu zen). Europan, Euroguneko manufakturen PMIak aurreko irakurketatik pixka bat hobera egin zuen arren, uzkurdura-mailetan kokatu zen hamaikagarren hilabetez jarraian.

INDIZEAK	PREZIOA	%Aldaketa Astean	% Ald 2020
MSCI WORLD (Local)	1.805,56	-0,22	0,32
IBEX 35	9.646,60	-0,56	1,02
DJ EURO STOXX 50	3.773,37	-0,24	0,75
DJ STOXX 50	3.428,95	-0,19	0,76
FTSE	7.622,40	-0,29	1,06
S&P 500	3.234,85	-0,16	0,13
Dow Jones	28.634,88	-0,04	0,34
NASDAQ	9.020,77	0,16	0,54
NIKKEI 225	23.656,62	-0,76	0,00
MSCI GORAKORRAK (Tokioa)	62.158,81	0,55	1,12
MEXBOL	44.624,86	0,82	2,49
BOVESPA	117.706,70	1,01	1,78
SHANGHAI	3.231,19	2,62	1,10
Errusia Rts Mosku	1.564,18	0,95	0,99

ERRENTA FINKOA:

Ekialde Ertaineko tentsioen ostean, merkatuaren ezinegon handiagoak zor subiranoaren errentagarritasunen jaitsiera bultzatu zuen, hala Europan nola AEBetan. Horiek horrela, hamar urterako bonu amerikarren errentagarritasunak 9 op egin zituen atzera, % 1,79raino, eta hamar urterako tasa alemanak 2 op, -% 0,28raino. Zor espainiarrari dagokionez, hamar urterako bonuari eskatutako errentagarritasunak 2 op egin zituen behera (% 0,39raino), eta arrisku-prima 66 puntutan mantendu zen. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2020
ALEMANIA 2 URTE	-0,62	0,01	-0,02
ESPAINIA 2 URTE	-0,39	0,01	0,00
AEB 2 URTE	1,52	-0,06	-0,04
ALEMANIA 10 URTE	-0,28	-0,02	-0,09
ESPAINIA 10 URTE	0,39	-0,02	-0,08
AEB 10 URTE	1,79	-0,09	-0,13
ALEMANIA 30 URTE	0,25	-0,03	-0,10
ESPAINIA 30 URTE	1,26	0,00	-0,06
AEB 30 URTE	2,24	-0,07	-0,15
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	44,62	1,05	0,57
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	208,64	3,45	2,27

DIBISAK / LEHENGAIK:

Dolarrak apenas izan zuen aldaketarik euroarekiko trukean. Ziurgabetasunaren handitzeak eragina izan zuen Yenean, eta % 1,31eko balioa galdu zuen euroaren aldean, babes-aktibo izan baitzen. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 2,15 igo zen Ekialde Ertaineko tirabiren ondorioz. Urriaren prezioa ere % 2,76 igo zen, babes-aktibo gisa ere jardun baitzuen.

Dibisak	Maila	%Aldaketa Astean	% Ald 2020
Dolarra / Euroa	1,12	-0,14	-0,48
Yena / Euroa	120,60	-1,31	-0,90
Libera / Euroa	0,85	-0,20	0,81

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2020
Petrolio (Brendt)	68,96	2,15	3,82
Urrea	1.552,20	2,76	2,30

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.